

Directrices de 18 de julio de 2018, del Consejo de Facultad de la Facultad de Derecho, para el desarrollo de la asignatura «Trabajo de Fin de Grado» de la Facultad de Derecho.

El perfil académico-profesional se nutre de las condiciones básicas exigidas para el desempeño adecuado de una serie de actividades profesionales. Si bien resulta incuestionable que dicho perfil no está directamente relacionado con cada una de estas actividades profesionales, contribuye decisivamente a facilitar las competencias precisas para poder afrontar de manera exitosa los estudios posteriores que habilitan para el ejercicio de la profesión.

Sin perder de vista tales asertos, la asignatura «Trabajo de Fin de Grado» (en adelante TFG) implica necesariamente que los/las estudiantes han de llevar a cabo un proceso sintético de recapitulación de todo lo aprendido a lo largo de sus estudios de Grado, materializándolo en la aplicación de tales conocimientos a una realidad concreta y bien definida. De este modo, el/la estudiante deberá demostrar que se encuentra en posesión de los elementos necesarios para su futuro desarrollo como profesional.

El art. 9 del Acuerdo 272016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico por el que se aprueba la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto (BOUD nº 63), regula las condiciones específicas de los Trabajos fin de estudios. La aprobación de dicha normativa ha supuesto la derogación del Acuerdo del Consejo Académico 3/2011, de 23 de junio, por el que se establecía la Normativa General sobre elaboración y defensa del trabajo de fin de Grado, y cuyo artículo 1.4 remitía a cada Facultad el desarrollo de dicho marco general. Igualmente ha derogado el Acuerdo 7/2012, de 17 de septiembre, del Consejo de Facultad de la Facultad de Derecho, por el que se aprueba la Normativa de la asignatura “Trabajo de Fin de Grado” de la Facultad de Derecho, modificado por Acuerdo 1/2015, de 28 de octubre, del Consejo de Facultad de la Facultad de Derecho.

Con el fin de establecer el procedimiento de la Facultad de la asignatura “Trabajo de Fin de Grado”, el Consejo de Facultad ha aprobado con fecha 18 de julio de 2018, lo siguiente:

I. Objeto de la asignatura

1. El TFG se concreta en la elaboración de un proyecto, memoria o estudio original realizado de forma personal por el estudiante bajo la supervisión de un tutor/a que, entre otras funciones, ejercerá las de orientador y facilitador del aprendizaje.
2. El contenido del TFG deberá ser eminentemente jurídico y el objeto del mismo habrá de tener relación con, al menos, dos ramas del Derecho.

II. Asignación de tutores y temas

1. Antes del período de matriculación, la Junta de Facultad instrumentará un procedimiento para la asignación de tutores, así como los temas que podrán desarrollarse en la elaboración de los TFG. Tal asignación tendrá vigencia de un curso académico.
2. Al inicio de cada curso se fijará por la Facultad el listado de tutores, y su posterior asignación a los estudiantes será gestionada por el responsable del TFG, atendiendo a criterios de categoría académica y dedicación.
3. Las temáticas generales sobre las que llevar a cabo la elaboración de los trabajos responderán a las áreas que se integran en cada uno de los Departamentos de la

Facultad. Será en todo caso responsabilidad del tutor que el trabajo tutorizado aluda, al menos, a dos ramas/materias concretas de nuestro ordenamiento jurídico.

III. Nombramiento de los Tutores

1. Todo el profesorado que imparte docencia con dedicación al menos semiplena, deberá estar disponible para ejercer de tutores de los TFG. Incluso, según las necesidades del Claustro, podrán asignarse tareas de tutorización a profesorado con dedicación restringida.
2. Si el estudiante realiza parte del TFG o su totalidad en el marco de un convenio de prácticas, podrá participar en su tutorización personal ajeno a la UD, en cuyo caso deberá nombrarse un co-tutor que forme parte del Claustro de la Facultad.

IV. Funciones del Tutor

1. El tutor colaborará con el estudiante en:
 - La elección del tema.
 - La definición de la estructura.
 - La selección de fuentes adecuadas.
 - El proceso de redacción del Trabajo.
 - El asesoramiento al estudiante en la preparación de la presentación ante el Tribunal.
2. El tutor/a quedará eximido de tales tareas si el estudiante no respeta las fechas de reunión y/o los plazos de entrega que se le indiquen. En tal sentido, a pesar de que no será posible privar al estudiante de la convocatoria correspondiente, el tutor podrá no avalar el trabajo presentado, hecho este que será puesto en conocimiento del tribunal adjudicado para su defensa.

V. Lenguas de redacción del TFG

El Trabajo de Fin de Grado podrá realizarse en castellano, euskera o inglés, según las condiciones para optar al idioma que establece la normativa general y la normativa específica de la Facultad de Derecho. El estudiante indicará el idioma escogido en el momento de la elección de la temática de su trabajo, para que así pueda procederse a la adjudicación del tutor más adecuado.

VI. Aspectos formales del TFG

1. La extensión del trabajo será de un mínimo de veinticinco y un máximo de treinta hojas, incluyendo las fuentes (bibliografía, legislación y jurisprudencia) utilizadas para su realización, pero no la portada, índice y los anexos que, a criterio del autor y/o de su tutor puedan añadirse.
2. Desde un punto de vista formal, deberá seguir las normas establecidas por la Facultad de Derecho para la presentación de trabajos escritos (ANEXO I).
3. La portada del trabajo será obligatoriamente la que se adjunta (ANEXO II) sin que en ella pueda figurar referencia alguna al tutor del mismo.

VII. Plazos, ejemplares a presentar y lugar de entrega del TFG

1. La entrega deberá efectuarse remitiendo un archivo en formato electrónico, comprensivo de la versión final del trabajo realizado, a la pertinente dirección de correo electrónico o identificador URL que Decanato pondrá a disposición de los estudiantes antes de la fecha límite para el depósito. El coordinador de los TFG remitirá las instrucciones pertinentes para asegurar que los tribunales de evaluación tengan a su disposición las versiones finales de los trabajos.

2. Quedará constancia de la entrega realizada en un archivo/ registro que será custodiado en la Secretaría de la Facultad.

VIII. Tribunales de evaluación

1. Los Tribunales de evaluación de los TFG estarán formados por dos personas, debiendo pertenecer ambas al profesorado de la Facultad.

2. El tutor no podrá formar parte del Tribunal de Evaluación del TFG en el que haya intervenido.

IX. Defensa del TFG

1. La defensa se llevará a cabo en la fecha que se indique de manera presencial, debiendo exponer el estudiante los objetivos, metodología, contenido y conclusiones de su TFG.

2. Terminada la exposición, los miembros del Tribunal podrán dirigir al estudiante cuantas preguntas, aclaraciones, comentarios y sugerencias estimen oportunos.

3. El tiempo máximo de exposición por parte del estudiante será de 8 minutos y el resto, hasta un total de 15 minutos, podrá ser utilizado por el Tribunal para sus intervenciones.

4. En el caso de que alguno de los miembros del Tribunal, o ambos, detectaran plagio en el trabajo que se somete a su consideración, dejarán constancia del mismo en el acta y darán traslado al Decanato para la apertura de expediente disciplinario si procede.

X. Evaluación del TFG

1. Terminada la exposición, el Tribunal de evaluación dará su calificación final, la cual se reflejará en un Acta única —firmada por todos los miembros— que también recogerá las notas emitidas previamente por cada uno de ellos, fruto de su evaluación respectiva del trabajo presentado (ANEXO III).

2. A la hora de evaluar el TFG, habrán de tomarse en consideración dos factores:

-El trabajo escrito presentado por el estudiante (setenta por ciento de la calificación final).

-La defensa del mismo ante el Tribunal designado al efecto (treinta por ciento de la calificación final).

Ambos porcentajes serán la media de las calificaciones previamente emitidas por cada uno de los miembros del Tribunal.

3. En todo caso, la evaluación hará referencia expresa al logro por el estudiante de las competencias generales y específicas del Grado en el nivel máximo desarrollado.

XI. Calificación del TFG

1. El Acta comprensiva de las calificaciones de la asignatura irá firmada por el Profesor responsable de la misma.

2. Si la calificación final fuera «suspenso», a petición del estudiante el Tribunal emitirá un informe motivado que trasladará al estudiante y al tutor, con el fin de que puedan ser corregidos los aspectos que se hayan considerado insuficientes.

3. El Tribunal podrá proponer, motivadamente, la mención «Matrícula de Honor» para aquellos estudiantes que obtengan la calificación igual o superior a «sobresaliente» (9).

*Todas las referencias a cargos, puestos o personas para los que en esta orden se utiliza la forma de masculino genérico deben entenderse aplicables, indistintamente, a hombres y mujer.

Fakultatearen Kontseiluko 2018ko uztailaren 18ko Gidalerroak, Zuzenbide Fakultateko Gradu Amaierako Lana irakasgaia garatzekoak.

Profil akademiko-profesionala lanbideko jarduera jakin batzuk egoki aurrera eramateko behar diren oinarrizko baldintzak hartuta osatzen da. Profil horrek ez du zuzeneko loturarik lanbide jarduera horietako bakoitzarekin, baina bete-betean laguntzen du lanbidean jarduteko gaitzen duten ikasketei arrakastaz aurre egiteko ezinbesteko gaitasunak eskuratzenten.

Hori guztia jakinik, esan dezakegu Gradu Amaierako Lana irakasgaiak (aurrerantzean GAL) ezinbestean eskatzen duela ikasleek Graduko ikasketetan zehar ikasi duten guztia biltzeko sintesi prozesu bat aurrera eramatea eta jakite horiek errerealitate zehatz eta ongi definitutakoan erabiltzea. Horrela, ikasleak erakutsi egin beharko du badituela etorkizunean lanbidean aurrera egiteko beharrezko elementuak.

Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 02/2016 Erabakiko 9. artikuluak, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak onartzen dituenak (63. DUAO), Ikasketen amaierako lanetako baldintza espezifikoak arautzen ditu. Araudi horren onarpenak Kontseilu Akademikoaren 3/2011 Erabakia, ekainaren 23koa, indargabetzea ekarri du. Hango 1.4 artikuluak Graduaren amaierako lana egiteko eta defendatzeko arau orokorrak ezartzen zituen, Fakultate bakoitzari zegokion araudi orokor hori garatzea. Era berean, indargabeturik geratzen da Zuzenbide Fakultateko Kontseiluaren 7/2012 Erabakia, azaroaren 17koa, Zuzenbide Fakultateko Gradu Amaierako Lanaren Araudia onartu duena (urriaren 28ko 1/2015 Erabakiak aldatua).

Fakultatean Gradu Amaierako Lana irakasgaiaren prozedura ezartzeko, Fakultateko Kontseiluak, 2018ko uztailaren 18an, honako hau erabaki du:

I. Irakasgaiaren helburua

1. Gradu Amaierako Lana proiektu, memoria edo ikerlan original bat izango da, ikasleak bere kabuz egin beharrekoa, tutore batek gainbegiratuta. Tutore horren egitekoa ikaskuntza orientatzea eta bideratzea izango da, besteak beste.
2. Edukia batez ere juridikoa izango da eta, gutxienez, Zuzenbidearen adar birekin eduki beharko du lotura.

II. Tutoreak eta gaiak esleitzea

1. Matrikulazio epea baino lehen, tutoreak eta GALetan lantzeko gaiak esleitzeko prozedura bat zehatzuko du Fakultateko Batzordeak. Gaiaren eta tutorearen esleipenak ikasturte baterako izango du indarra.
2. Ikasturte bakoitzaren hasieran, Fakultateak tutoreen zerrenda zehatzuko du. Ikerla bakoitzari dagokion tutorearen esleipena GALaren arduradunak kudeatuko du, tutoreen kategoria akademikoa eta dedikazioa kontuan hartuta.
3. Lanetan jorratuko diren gai orokorrak Fakultateko Sailetako arloekin lotuta egongo dira. Nolanahi ere, lanaren tutorearen ardura izango da lanek, gutxienez, gure ordenamendu juridikoaren bi adar/arlo zehatzei erreferentzia egitea.

III. Tutoreak izendatzea

1. Dedikazio erdia edo hortik gorakoa duten irakasle guztiak prest egon behar dute GALaren tutore izateko. Klaustroaren beharrizanak kontuan hartuta, dedikazio murriztua duten irakasleei ere esleitu ahal izango zaizkie tutoretza lanak.
2. Ikasleak praktika hitzarmen baten esparruan egiten badu GAL osoa edo haren zati bat, DUTik kanpoko pertsonek hartu ahal izango dute parte tutoretzan. Halakoetan, Fakultateko klaustroko tutorekide bat ere izendatu beharko da.

IV. Tutorearen funtzioak

1. Tutoreak ikasleari lagunduko dio:

- Gaia aukeratzen.
- Egitura definitzen.
- Iturri egokiak aukeratzen.
- Lana idazteko prozesuan.
- Ikasleari aholku ematen, epaimahaiaren aurreko aurkezpena prestatzeko orduan.

2. Tutoreak ez ditu eginkizun horiek aurrera eramango ikasleak ez baditu errespetatzen jakinarazten zaizkion bilera egunak eta/edo emate epeak. Horrela, nahiz eta ikasleari ezin zaion kendu dagokion deialdia, tutorearen esku dago aurkeztutako lanari oniritzirik ez ematea. Horrela egiten badu, defentsarako esleitutako epaimahaiari jakinaraziko dio.

V. Lana idazteko hizkuntzak

Gradu Amaierako Lana gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez egin ahal izango da, araudi orokorretan eta Zuzenbide Fakultateko araudi espezifikoan hizkuntza aukeratzeko baldintzetan ezartzen denaren arabera. Ikasleak lanaren gaia aukeratzean zer hizkuntza aukeratzen duen ere adieraziko du, horrela tutorerik egokiena esleitu ahal izateko".

VI. Gradu Amaierako Lanaren alderdi formalak

1. Lanak gutxienez hogeita bost orri eta gehienez hogeita hamar orri izango ditu. Kopuru horren barruan sartuko dira lana egiteko erabilitako iturriak (bibliografia, legeria eta jurisprudentzia), baina ez azala, aurkibidea eta eranskinak baina ez azala, aurkibidea eta eranskinak (egileak eta/edo tutoreak egoki iritziz gero, eranskinak gehitu litezke).
2. Formari dagokionez, Zuzenbide Fakultateak lan idatziak aurkezteko ezarritako arauen araberakoa izango da (I. ERANSKINA).
3. Lanaren azalak, nahitaez, II. ERANSKINEAN jasotako ereduari jarraituko dio. Azalean ez da azalduko lanaren tutorearen inolako erreferentziarik.

VII. Lana aurkezteko epeak, aleak eta tokia

1. Lana entregatzeko, artxiboa euskarri elektroniko ulergarrian bidali beharko da egindako lanaren azken bertsioarekin. Horretarako Dekanatuak ikaslearen eskura jarriko du helbide elektronikoa edo URL identifikatzalea. Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak emango ditu beharrezkoak diren jarraibideak, ebaluaziorako epaimahaiak eskura izan ditzaten lanen azken bertsioak.
2. Lana entregatu dela erregistro/fitxategi batean jasota geldituko da, Fakultateko Idazkaritzaren zaintzaean.

VIII. Ebaluaziorako epaimahaiak

1. Gradu amaierako lanak ebaluatzeko epaimahaiak bi kide izango dituzte, kide guztiak izango dira Fakultateko irakasleak.

2. Tutorea ezin izango da izan bere tutoretzapeko ikasleak aurkeztu duen lana ebaluatzeko epaimahaiko kide.

IX. Gradu amaierako lanaren defentsa

1. Defentsa zehaztutako egun eta orduan izango da, aurrez aurre. Ikasleak bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu.

2. Azalpena emateko denbora amaituta, epaimahaikideek egoki iruditzen zaizkien galderak, oharrok, iruzkinak eta iradokizunak egin diezazkiokete ikasleari.

3. Ikasleak 8 minutu izango ditu, gehienez, bere aurkezpena egiteko. Gainerako denbora, 15 minutura arte, Epaimahaia erabili ahal izango du, bere ekarpenak egiteko.

4. Baldin eta epaimahaiko kideren batek edo biek aztergai den lanean plagioa antzematen badute, horren berri emango dute aktan bertan eta Dekanotzan jakinaraziko dute, diziplina espedientea zabaltzeko, hala badagokio.

X. Gradu Amaierako Lanaren ebaluazioa

1. Ikasleen ahozko aurkezpena bukatuta, Ebaluazio Epaimahaia kalifikazioa emango du. Kalifikazio hori akta bakarrean jasoko da –kide guztiekin sinatua-. Akta horretan jasoko dira, halaber, epaimahaikide bakoitzak aurkeztutako lana ebaluatzean aurretik emandako notak (III. ERANSKINA).

2. LANA EBALUATZEKO ORDUAN, BI FAKTORE HARTUKO DIRA KONTUAN:

-Ikasleak aurkeztutako lan idatzia (azken kalifikazioaren ehuneko hirurogeita hamar izango da).

-Epaimahaiaaren aurreko defentsa (azken kalifikazioaren ehuneko hogeita hamar izango da).

Bi ehuneko horiek Epaimahaikide bakoitzak emandako kalifikazioen batez bestekoak izango dira.

3. Ebaluazioak berariaz aipatuko du ikasleak Graduko gaitasun orokor eta espezifikoetan lortutako garapen mailarik handiena.

XI. Gradu Amaierako Lanaren kalifikazioa

1. Irakasgaiko kalifikazio akta irakasgaiaren arduradun den irakasleak sinatuko du.

2. Azken kalifikazioa “gutxiegi” bada, ikasleak hala eskatuz gero, Epaimahaia arrazoien txostenetan egingo du eta ikasleari eta tutoreari emango die, nahikotzat jo ez diren alderdiak zuzentzeko.

3. Epaimahaia “Ohorezko Matrikula” aipamena proposa dezake, arrazoituta, “Bikain” (9) kalifikazioa edo hortik gorakoa lortzen duten ikasleentzat.